PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Urepele

Urepele herria
Nafarroa Beheran dago, Frantzian.



Mapa honetan kolore gorrian Nafarroa Behera non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin
eta Espainia eta Frantzia arteko muga
gurutzatzen saiatu ziren.
Frankistek
ihes egin zuten pertsona asko hil zituzten.

Baina bakarrik 3 pertsona hauek lortu zuten:

- Jovino Fernandez Gonzalez Leonekoa zela.

- Valentin Lorenzo Salamancakoa zela.
- Jose Marinero Segoviakoa zela.

Jovino Fernandezek
muga Urepele herritik pasa zuen.
Muga pasa eta gero Jovino
Bartzelonara itzuli zen
frankismoaren kontra borrokatzen jarraitzeko.

GR-225 ibilbide handiko mendi-bidea
Jovino Fernandezek San Kristobal Gotorlekutik
ihes egin zuenean
Frantziara heltzeko egin zuten ibilbidea da.
Horregatik ibilbidea Urepelen amaitzen da.

2017. urtean Nafarroako Gobernuak
seinaleak jarri zituen ibilbidean
pertsonek ibilbidea egin
eta bertan gertatu zena gogoratu ahal izateko.

Memoriaren Nafarroako Institutuak
Memoria Duten Eskolak programaren barruan
Askatasunaren Botilak izena duen proiektua sortu zuen.

Proiektu honetan
Nafarroako institutuetako ehunka ikaslek
ibilbidea egiten dute.
Ikasleek botila batzuen barruan
San Kristobal Gotorlekutik
ihes egiten saiatu ziren presoekin
harremana duten argazki eta testuak eramaten dituzte.

Frankistek gaixotasunengatik hiltzen ziren presoak
gotorlekutik gertu dagoen
Botilen Hilerrian lurperatzen zituzten.
Bertan botila batzuekin lurperatzen zituzten.

Horregatik ikasleek ibilbidea
botila batzuekin egiten dute.
Botilak askatasunaren
eta bertan gertatu zenaren sinboloak dira.

Esteka honetan GR-225 ibilbide handiko mendi-bidearen
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/urepele#landmark-video-1